

## P. J. Harvey?

**K**atixa, aitortzen dut Patxi Lopezek P. J. Harvey entzuten zuela errebelatu duzunean –Interneten irakurritan– nahasdura une bat izan dudala. Sexy-a eta guzti iruditu zait hautagai sozialista, Juanjo. Agitxo bat piztu zait garunaren zoko batean. Eta pixka bat kosta zait agitxo hori lokalizatzea, ulertzea zergatik piztu zaidan.

Garai ez hain urrun batean denek zuten erlijio bera, medikuntza mota bakarra zegoen, elikadura ere betikoa eta bakarra zen –zegenarekin osatua–, eta eskaintza urria izanki aisialdiak ere berdintsuak ziren denentzat –kirol mota bera, filme eta liburu mota bera–. Maitasuna ere eredu bakarrekoa zen, noski, eta aurrekodifikatua. Besteengandik –banaka nahiz talde gisa– desberdintzeko zenuen modu bakarra, hortaz, ideologia zen. Politikoki desberdina izateko aukerarik egon bazegoen izan ere, artean utopiek zutik baitzirauten. Ismoak, asko izateaz gain, irmoak ziren (anarkismoa, karlismoa, nazionalismoa, komunismoa, kapitalismoa, troskismoa, antimilitarismoa, pazifismoa, katekismoa, frankismoa...). Laburbiltzeko, ondare kultural amankomuna genuen –beno, hain zaharra ere ez naiz eta ulertzen da “gu” hau erretorikoa dela, ezta?–, baina ondare bakar horren interpretazio kontrajarriak genituen.

Orain justu alderantzizkoa gertatzen da. Politikoki denok gara... errealistak. Beste arloetan, aldiz, oparotasunak ez dauka mugarik, ez bada irudimenarena berarena. Izpirituaren bazka, esaterako, orotarikoa da. Hainbesterainokoa ezen katolizismoa *classic* etiketarekin aurkezten baitzaigu ondoan ugaldutik diren aldakien oihanean ez gaitzen galdu: erlijio *lighta* (budismoa), “kafaina gabea” –katolizismoan erritikoak bakarrik kontsumitzen dituenen, morala bazter utziz–, *cherry* erlijioa –New Age-ak ekarritakoak–, “Zero” erlijioa... Eta gainon-



DANI BLANCO

Ur Apalategi

Olasagarre

Agirre

tzeko arloetan beste hainbeste gertatzen da: edonork asma dezake terapeutika berri bat bost minututan, bi aldiz gauza bera jateak sakonki deprimitzen gaitu, eta Internetek Alejandriako liburutegia –eta Borgesena bera ere– txiki utzi ditu. Azkenik, sexu jardueren katalogoari dagokionean *Kamasutraren* ehun posturak aitzinsolas izatera igaro dira.

Egoera honen aurrean, kontua ez da jada besteengandik desberdintzea –gure gustuek eta joerek uneoro desberdintzen baikaituzte arlo guztietan–, baizik eta besteekiko loturak aurkitzea. Eta aukera guztien sare erraldoiaren arlo batean edo bestean gure antzeko gustuak dituen norbaitekin topo egiten dugunean giza-lotura baten posibilitatearekin amets egiten hasten gara. “Azkenean aurkitu dut aldi berean Schoppenhauer eta M-ak taldearen lehen bi diskoak gustukoak dituen beste norbait”. Orduan kontaktuan jartzen gara, e-mail bat igorri edo mezu bat utziz bere Facebook orrian, txateatzera pasatzen gara, telefonoz hitzordu bat jartzen dugu –aurretik argazkiak trukaturik zuhurrak baldin bagara, ala, emozio bortitzen adiktoak izanez gero, bestearen aurpegia ezagutu gabe–, elkartzen gara kafetegit batean, zinemara joaten gara bigarrenaldian, afaltzeko geratzen gara hirugarrenean, zorte askorekin –edo benetan biok desesperatuak bagaude– larrutan egiten dugu, eta... ohartzen gara bestea bost axola zaigula eta pikutara bidaltzen dugu harremana –harreman deitu badaiteke hori–. Zeren funtsean gustatzen zaiguna ez da tipoa edo tipa, baizik eta Schoppenhauer eta M-ak.

Bada, niri ere antzeko zer edo zer gertatzen zait, Francisco Lopez. P. J. Harvey da gustatzen zaidana, ez zu.

P. D.: A, portzertu, nickname polita aukeratu duzuna. “Patxi” horrek nire herria oroitarazten dit. ■

Internetek Alejandriako liburutegia –eta Borgesena bera ere– txiki utzi ditu. Azkenik, sexu jardueren katalogoari dagokionean *Kamasutraren* ehun posturak aitzinsolas izatera igaro dira